

**Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei diru laguntza emateko deialdia:
oinarriak**

1. Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da Malerrekako Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei diru laguntza emateko modua arautzea.

2. Diru laguntzaren baldintzak. Malerrekako 2014an Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu edo berriro duten eragileei zuzendutako diru laguntza hauek. Diru laguntza jasotzeko beharrezkoa da eragile eskatzaileek Bai Euskarari Elkarteari urteko faktura ordainduta izatea.

3. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak egiteko epea 2014ko urriaren 27tik azaroaren 28ra artekoa, bi egunak barne, izanen da.

4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Deialdi honetako laguntza eskuratzeko interesatuek eskaera egin behar dute, eranskinean azaltzen den eredu erabiliz. Eskaera orriarekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

- IFKaren fotokopia.
- Bai Euskarari elkarteari 2014an ordaindutako fakturaren fotokopia.
- Fakturaren ordainagiria.

Dokumentazioa Malerrekako Mankomunitatean (Zazpigerutze, 2, beheiti. 31740 Doneztebe) aurkeztu behar dute, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikulua aurreikusitako edozein lekutan.

5. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emanen zaizkio akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

6. Ebazpena. Deialdi honetako diru laguntzak mankomunitateko lehendakariak ebatziko ditu, Euskara Batzordeak proposatutako txostena ikusita. Ebazpen hori interesatu guztiei jakinaraziko zaie.

7. Diru laguntzaren zenbatekoa. Xede hauetarako, guztira, 1.000 euro erabiliko dira. Euskara Zerbitzuko 2014ko ekitaldiko aurrekontuetako 1 4511 47002 kontu sailean jasotako kredituaren kontura.



Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzak jasoko duen diru laguntza 42,50 eurokoa izanen da; hau da, Bai Euskarari Elkarateak ziurtagiriarengatik ezarria duen oinarrizko prezioaren % 50.

Hala ere, eskaera guztiak batu eta mankomunitatearen 2013ko aurrekontuetan kontzeptu honetarako aurreikusi den diru esleipena gainditzen badute, diru esleipen hori eskatzaile guztien artean banatuko da, modu berdinean.

8. Diru laguntzaren ordainketa. Diru laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, haiek emateko erabakia hartu ondoren.

9. Datuen babesa. Eskatzaileen datuak babesteari buruzko abenduaren 23ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

10. Auzibidea. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Toki-Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

11. Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertzeke errekurtsoa, administrazio egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Goiti jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

**ERROTULUAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA:
ESKABIDEA**

Eskatzailearen datuak:

- ✓ Eskatzailearen izen-abizenak:
- ✓ Eskatzailearen NAN:
- ✓ Elkaratearen edo establezimenduaren izena:
- ✓ Elkaratearen establezimenduaren edo enpresaren IFZ:
- ✓ Helbidea:
- ✓ Posta kodea:
- ✓ Herria:
- ✓ Telefonoa:
- ✓ E-posta:
- ✓ Kontu korrante zenbakia:

Data eta sinadura